

Patxi Baztarrika, Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia, arlo estrategikoa euskararentzat

Hasierako hitzak, nahitaez, esker ona adierazteko hitzak izan behar. Esker ona hona etorri zareten guztioi. Esker ona, nola ez, oso bereziki Microsoft enpresaren ordezkari, eta DELL, HP eta Investrónica enpresetako ordezkari. Euskararentzako, herritarren hizkuntz aukera berdintasunaren garapenarentzako eta munduko hizkuntz aniztasunarentzako onuragarria den notizia batek ekarri gaitu ekitaldi honetara. Horregatik esker ona guztioi.

Informazioaren eta komunikazioaren aroan bizi gara eta, hori dela eta, unibertsitateak, ikerketa-zentroak eta enpresak hizkuntzen trataera berezia egiten duten teknologia garatzen ari dira, “infoingeniaritza linguistikoa” edo “hizkuntzen teknologia”, hain zuzen. Negozio-bide eta merkatu berriak agertu dira.

Denbora asko baino lehen, teknologia izango dira, herri garatu eta ez garatuak ez ezik, hizkuntza garatu eta ez garatuak ere bereiztuko dituztenak. Euskarak beste hizkuntzen artean, hizkuntza garatuen artean, leku egokia aurkitu eta sendotuko badu, garai berriko teknologia hauetaz baliatzen den neurrian bakarrik aurkituko du.

Informazio eta Komunikazio Teknologien esparruak euskararen normalizaziorako duen garrantziaz jabetuta dago Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Horregatik bideratzen ditu urtez urte gero eta dirulaguntza zabalagoak esparru honetarako, eta horregatik sustatzen ditu urtero euskarazko tresna eta aplikazio berriak gero herritarren eskura jartzeko.

Globalizazioa euskaldunontzat ez da mehatxu bat, errealitate bat baizik, erronka bat. Eta mundu berri honetan, aukera gisa ulertu, onartu eta geureganatu behar ditugu IKTak. Euskararen primerako aliatuak izan litezke teknologia horiek, baldin eta etxeko lanak taxuz egiten baditugu. Teknologia horiek bikain baliatzen baditugu, irabazteko asko dauka euskarak, galtzekorik ez. Eta horretan asmatzea da gure helburua. Izan ere, hain indartsuak diren beste hizkuntza ugarien artean, babesa behar baitu euskarak, babesa zor diogu euskarari, babesa emateko eta indartzeko baliatu behar ditugu teknologia hauek irekitzen dizkiguten aukera berriak.

IKTak, sarea, Internet: horiek osatzen dutena da giltzarria. Dinamika horretatik kanpora geratzen den guztia guztiz marjinala izatera deitua dago. Edo –okerrago oraindik- desagertzera kondenatua. Horregatik daukate berebiziko garrantzia euskararen presentziak sarean eta hizkuntzen teknologia euskararako baliatzeak. Berebiziko garrantzia daukate, ez hor ere egotea komenigarria delako, ez, hor/horietan egon gabe euskara arnasarik eta etorkizunik gabe geldituko litzatekeelako baizik.

Hori ez da berez lortuko. Guztion lanari esker bakarrik izango dugu arrakasta.

Guztiok dugu zereginik franko bide horretan: herri-erakundeek bezala enpresek (Microsoft bezalako enpresek) eta gizarte-eragileek. Eta, oso bereziki, herritarrek, gutariko bakoitzak alegia. Guztiok.

Microsoftek euskaraz ere eskainiko ditu bere produktu berrienak: Windows Vista eta Microsoft Office 7a. Eta hala nahi duten erabiltzaileek, aukera izango dute mundu osoan zehar erabiltzen diren tresna horiek euskaraz erabiltzeko. Eskertzekoa da Microsoftek egin duena.

Orain besteona da txanda. Orain Microsofti erakutsi behar diogu, merezi izan duela bere ahaleginak. Erakutsi behar diogu Microsoften produktuen kontsumitzaile ugari garela bere tresna berrienak euskaraz erabiliko ditugunak. Honetan ere erabiltzaileak behar ditugu, euskarari klik egingo dioten erabiltzaileak. Izan ere, euskarak etorkizun sendoa irabazten jarraituko badu, behar-beharrezkoa da, ezinbestekoa, euskara han eta hemen, honetan eta hartan, erabiltzeko aukerak sortzea; baina aukerak sortzea bezain beharrezkoa edo are beharrezkoagoa da, jadanik eskura ditugun aukerak baliatzea. Eta asko dira eskura ditugun aukerak. Euskarari klik egiteko tresna asko ditugu dagoeneko: hiztegiak, banku terminologikoa, zuzentzaile ortografikoa, hainbat eremutan erabiltzeko aplikazioak... Euskararekin dugun erronka berbera dugu, ordea, euskarazko baliabide teknologikoekin: tresnak izatetik (edo edukizetik), tresnak erabiltzera pasatzea. Euskaldun gehienek eskura dauzkaten tresna asko erabiltzeko urrats kualitatiboa emateke daukate oraindik: dela ohitura faltagatik, dela tresna hauek euskaraz ere badirela ez dakitelako, edo dena delakoagatik. Kontua da, euskarak salbatzaileak ez baizik eta hiztunak eta teknologi erabiltzaileak/kontsumitzaileak behar dituela.

Saiatu beharko dugu, horren ardura politikoa dugunok eta zuek –euskara eta teknologiak uztartzen lan egiten duzuenok–, tresnak garatzen ez ezik, baita gainontzeko euskaldun guztiak kutsatzen ere, erabileraren aldeko birusaz kutsatzen. Nahi nuke euskara, birus bat bezala, azkar eta asko zabalduko balitz milaka ordenagailutara. Ukan birusak kutsatutako teknologia eta euskara erabiltzaileak behar ditugulako.

Ez gaude geldirik, ondo goaz, aurrerantz goaz argi eta garbi. Gaur egun euskarak interneten eta hizkuntz teknologien tresnerian duen presentzia euskal hiztunen kopuruak munduko biztanleen artean duen pisuaren arabera legokiokeena baino askoz altuagoa da. Nolanahi ere, euskararen tokia beti izango da txikia sare horietan, ez dezagun garenaren neurria ahantzi. Kontua da aukera guztiak baliatzeko gai izan behar dugula, ahal dugun neurririk handiengan.

Horregatik bi gonbite eginez bukatuko dut. Gonbite bat Microsofti eta gainontzeko enpresei: jarrai dezatela bide honetatik. Merezi du, eta oso eskertzekoa da Microsoftek egin duena. Jarrai dezala, jarraitzeko motibo ugari dauzka-eta. Motibo horietako batzuk aipatuko ditut: euskaraz ulertzen eta hitz egiten dakien biztanleria etengabe handitzen ari da; derrigorrezko hezkuntzan ikasleen % 90ek euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egiten ditu ikasketak; unibertsitatean lehen aldiz

matrikulatzen direnen %45 ikasketak euskaraz egiteko matrikulatzen da; irakasleen %55ak ordenagailua erabiltzen du ikasgelan; Euskadiko internauten gehiengo zabalak euskaraz ulertzen du edo hitz egiten du; Europako erakundeak gero eta indartsuago eskatzen ari dira hizkuntza dibertsitatearen aldeko praktikak; euskararena izan liteke Europan hain indartsua ez den hizkuntza baten teknologi garapeneko praktika on edo esperientzia pilotu arrakastatsu bat.

Bigarren gonbitea herritarrei zuzentzen diet: erabili ditzatela euskaraz Microsoften produktu berri hauek. Microsoftek eta herri-erakundeok egin dugu egin beharrekoa, erabiltzeko aukera sortu: orain herritarren esku dago erabakia, eurena da txanda, euskara erabiltzeko aukera baliatzea.

Klik egin euskarari!